

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak 2017an milioi bat erabiliko du bereziki okupatuta dauden pertsonak prestatzeko

3.000 bat pertsonarentzat 200 ikastaro inguru finantzatu ahalko direla kalkulatu da

Asteazkena, 2016.eko urriak 5

Nafarroako Gobernuak gaurko bileran erabaki bat hartu du eta, haren arabera, Nafar Lansareko zuzendari kudeatzaileari baimena ematen zaio 2017an 1 milioi euroko urte anitzeko gastu-konpromiso bat har dezan bereziki okupatutako pertsonak prestatzeko jardueretarako. 3.000 bat pertsonarentzat 200 ikastaro inguru finantzatu ahalko direla kalkulatu da.

Lehen aldiz lau urtetan, baimen horri esker, datorren urtean emango den prestakuntza guztia aurrez eskaini ahalko da. Alde batetik, enpresa eta langileen beharrei erantzun egoki bat eman ahalko zaie eta, bestetik, prestakuntzako erakunde nahiz zentroek beraien jardueraren programazio hobea egingo dute.

Foru Gobernuak emandako gasturako baimen hori, Nafar Lansareak 2017an egiaztatutako prestakuntzako erakunde nahiz zentroek eta haien taldeek egingo dituzten prestakuntza-planak finantzatzeko deialdia onartu aurretiko urratsa da.

Nafar Lansarea deialdi hori izapidetzen hasi da dagoeneko, urri amaieran onartuta izatea espero da, eta haren ondoren eskaera-epe bat zabalduko da zentroek laguntzak eskuratu ahal ditzaten. Epe hori amaitzen denean, baremazioa eta izapidetzea egingo da eta, beraz, deialdia urte amaierarako ebatzita izatea espero da. Horri esker, zentroek prestakuntza-jarduerari 2017ko urtariletik heldu ahal izango diote.